



MAKETA LEHIAKETA

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK 2025

LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Parte hartzaileek Igartzako Monumentu Multzoa osatzen duten eraikinetako bat (Dolarea, jauregia, ermita, errota edo burdinola), hauen barneko espazioetako bat edo Monumentu Multzoa bere osotasunean maketa batean aurkeztu beharko dute.
2. **Edozein adineko** pertsonak har dezake parte. Irabazleen aukeraketa bidezkoagoa izateko, lehiaketa hiru kategoriatan banatzen da adinaren arabera:
 - a. 11 urtetik beherakoak
 - b. 12 eta 18 urte bitartekoak
 - c. 19 urtetik gorakoak
3. **Maketaren ezaugarriak.** Maketa egiteko erabil daitezkeen materialen aukeraketa (zura, porex, kartoia, plastilina...) erabat askea da. Parte hartzeko bete behar den inprimakian, maketaren azken neurria adierazi beharko da, betiere 80zm-ko zabalera gainditu gabe.
4. Epaimahaiak hurrengo ezaugarriak balioztatuko ditu:
 - a. Arkitekturarekiko fideltasuna. Eskalan egina egotea eta jatorrizko materialen imitazioa.
 - b. Eraikuntzei lotutako lanbide tradizionalei keinua egitea: hargina, arotza, errotaria, olagizona, ikazkina ...
 - c. Argi-sistema edota mugimendua (motore elektriko txikien bidez), zein errealismoa eman dezaketen bestelako elementuen erabilera.
 - d. Originaltasuna.
5. **Izen ematea.** Irailak 10etik 28ra (biak barne), inprimakia beteko aukera ezberdinak:
 - a. Web orritik, inprimakia betez: www.igartza.eus/albisteak/xxxx
 - b. igartza@beasain.eus helbidera idatzita, inprimakia erraztuko dizugu.
 - c. Igartzako Monumentu Multzora bertaratuz, asteazkenetik igandera 11:00 – 14:00 eta 16:00 – 20:00. Inprimakia eskuz betetzeko aukera emango dugu.
6. **Maketak entregatzeko epea:** Urriak 1etik 5era (biak barne). Igartzako jauregian, 11:00 – 14:00 eta 16:00 – 20:00.
7. **Epaimahaiaren balorazioa** urriak 8tik 12ra egingo da.



8. **Erakusketa** parte hartzaileen maketekin antolatuko da, Igartzako jauregiaren erakusketa aretoan urriak 17tik azaroak 1a arte (biak barne), ondorengo ordutegian:
Asteazkenetik ostiralera 18:00tatik 20:00tara, asteburuetan 11:00tatik 14:00tara eta 18:00tatik 20:00tara.
9. **Sari banaketa.** Erakusketaren azken egunean, azaroak 1a, burutuko da sari ematea. Hau 19:00tan izango da, jauregiko patioan.
Ekitaldia amaitzean, norberak bere maketa eramateko aukera du.
10. **Asistentzia.** Sari banaketaren ekitaldira etortzea ez da derrigorrezkoa.
Ekitaldiaren hasieran parte hartzaileen zerrenda pasako da, guztiak etorri direla bermatzeko, inork etortzeko arazorik izango balu aurretik jakinaraztea eskertuko da.
Bestalde, etorri ez den norbait sariduna suertatzen bada, Igartzatik ohar bat bidaliko zaio inprimakian erraztutako kontaktura.
Maketa jasotzeko ere, azken egunean (azaroak 1) norbaitek ezin badu bertaratuko, Igartzatik harremanetan jarriko dira jabearekin egun bat zehazteko.
11. **Sariak.** Lehenago aipatu bezala, lehiaketa adinaren arabera hiru kategoriatan dago banatuta. Antolatzaileen nahia izan da, sariak adin-tartearekin bat joatea.
Sariak honako hauek izango dira:

	11 urtetik beherakoak	12 eta 18 urte bitartekoak	19 urtetik gorakoak
1. Saria Epaimahaiak hautatuak	• Igartzako plaka. • AstoTrek, 50€-ko opari bonua.	• Igartzako plaka. • 6 lagunentzako sarrerak Laser Parkera.	• Igartzako plaka. • Goierriko produktuez osatutako saskia
2. Saria Herritarren bozka bidez hautatuak.	• Eraikuntza joko bat. • Igartzako antzara jokoak. • Diploma	• Eraikuntza joko bat. • Diploma	• Eraikuntza joko bat. • Diploma.

Sari edo kategorია bat hutsik geratuko balitz, antolatzaileek erabakiko dute zer egin hauekin.